

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Gure proiektuak funtziona dezan, hauek izango dira egingo ditugun funtsezko jarduerak **arazoak konpontzeko**:

Alde batetik, **zerbitzu egokia ematea**, hau da, arazoak konpontzen datza gure funtsezko jarduera. Izango dugun psikologoak bere lana ondo egiten duela ziur izan behar dugu, pisu handia izango baitu proiektu honetan. Izan ere, berari eta gure laguntzari esker, bezeroek antsietatea normalizat hartzea eta epe luzera antsietate maila gutxitzea lortu nahi dugu; epe luzera esaten dugu, ez delako erraza sentimendu hau gainditzea, eta beraz, epe luzera funtzionatuko duela jakiteko, bezeroei jarraipen bat egingo diegulako. Horregatik, badakigu antsietate maila jaistearen emaitzak ez direla berehala etorriko, hori bakarrik denborarekin baloratu ahalko dugu.

Garrantzitsua da, beraz, gure bezeroen jarraipena egitea epe luzera. **Salmenta ondorengo zerbitzu** bezala ulertuko dugu epe luzerako harreman hori mantentzearena.

Beste aldetik, **bezero asko lortzea** ezinbestekoa da gure negozioak aurrera egiteko. Horretarako, gure produktua ondo saldu behar dugu, eta ahalik eta ikastetxe gehienetara joan behar gara gure proiektuak aurrera jarraitzea nahi badugu. Izan ere, epe luzerako proiektutzat ikusten dugu.